

Kredituak aitortzeko eta transferitzeko sistemaren esparru araudia

Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Gradua

2024ko iraila

KREDITUAK TRANSFERITZEKO ETA AITORTZEKO SISTEMA

Kredituak aitortzeko eta transferitzeko sistemaren esparru araudia Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua ikasi nahi duten ikasleak sartzeko eta onartzeko

Lehena.- Kredituen aitortpena

Lehena.1) Kreditu aitortpena esaten dugunean, kredituak onartzeaz ari gara, ikasleak kreditu horiek **irakaskuntza ofizialetan** lortu dituztenean, Mondragon Unibertsitatean edo beste Unibertsitate batean, eta Industria Antolaketako Ingeniaritza Graduak ikasketetan konputatzen direnean, titulu ofiziala lortze aldera.

Goi Eskola Politekniko honek beste Unibertsitate batzuetan egindako ikasketengatik lortutako kredituak aitortu ahal izango ditu, baita egindako ikasketetako gainerako gaiei lotutako kompetentzia eta ezagutzen egokitzapenaren arabera eta ikasketak planean aurreikusitako arabera ere, edota zeharkakoak badira, betiere ECTS kredituen eskola karga antzekoa baldin bada, gradu amaierako lanari dagozkion kredituak izan ezik.

Lehena. 2) Halaber, **unibertsitatez kanpoko goi mailako beste ikasketak ofizial** batzuetan ikasitako kreditu batzuk ere aitortu ahal izango dira, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen direnen arabera.

Ondorio hauetarako, gaur egun arte, Goi Mailako Heziketa Zikloen eta Graduen artean aitortpen hauek identifikatu dira.

Edozein kasutan aitortu daitezkeen unitate txikiak ikasgaiak izango dira.

GRADO EN INGENIERÍA EN ORGANIZACIÓN INDUSTRIAL (PLAN 2022)

RECONOCIMIENTO DE CRÉDITOS ENTRE CFGS Y GRADOS

A. Entre el Técnico Superior en Programación de la Producción en Fabricación Mecánica y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
FABRICACIÓN MECÁNICA	Técnico Superior en Programación de la Producción en Fabricación Mecánica (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Empresa	6
			Expresión gráfica	6
			Procesos de fabricación	6
			Ingeniería de calidad	6
			Calidad, seguridad y medio ambiente	4,5
			Orientación laboral	3
			Gestión de activos físicos	3
			Logística I	6
			TOTAL	40,5

B. Entre el Técnico Superior en Programación de la Producción en Molde de Metales y Polímeros y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
FABRICACIÓN MECÁNICA	Técnico Superior en Programación de la Producción en Molde de Metales y Polímeros (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Empresa	6
			Expresión gráfica	6
			Procesos de fabricación	6
			Ingeniería de calidad	6
			Calidad, seguridad y medio ambiente	4,5
			Orientación laboral	3
			Logística I	6
			TOTAL	37,5

C. Entre el Técnico Superior en Construcciones Metálicas y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
FABRICACIÓN MECÁNICA	Técnico Superior en Construcciones Metálicas (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Empresa	6
			Expresión gráfica	6
			Procesos de fabricación	6
			Logística I	6
			Calidad, seguridad y medio ambiente	4,5
			TOTAL	28,5

D. Entre el Técnico Superior en Diseño en Fabricación Mecánica y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
FABRICACIÓN MECÁNICA	Técnico Superior en Diseño en Fabricación Mecánica (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Expresión gráfica	6
			Procesos de fabricación	6
			Empresa	6
			TOTAL	18

E. Entre el Técnico Superior en Automatización y Robótica Industrial y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
ELECTRICIDAD Y ELECTRÓNICA	Técnico Superior en Automatización y Robótica Industrial (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Empresa	6
			Orientación laboral	3
			TOTAL	9

F. Entre el Técnico Superior en Mecatrónica Industrial y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
FABRICACIÓN MECÁNICA	Técnico Superior en Mecatrónica Industrial (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Empresa	6
			Expresión gráfica	6
			Sistemas fluidos industriales	3
			TOTAL	15

G. Entre el Técnico Superior en Química y Salud Ambiental y el Grado en Ingeniería en Organización Industrial

Familia	Título CFGS en:	Graduado/a en:	Asignatura reconocible	Nº ECTS
SEGURIDAD Y MEDIO AMBIENTE	Técnico Superior en Química y Salud Ambiental (LOE)	Ingeniería en Organización Industrial	Inglés	3
			Formación y orientación laboral	3
			Ciencia y la tecnología de los alimentos	4,5
			Ingeniería ambiental	6
			TOTAL	16,5

Lehena.1) eta lehena.2) ataletan jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lehena.3) **Beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate ikasketetan** eskuratutako beste kreditu batzuk ere aitortu ahal izango dira, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen direnen arabera.

Aitortutako gutxieneko ECTS kopurua	Aitortutako gehienezko ECTS kopurua
3	36

Edozein kasutan aitortu daitekeen unitate txikiena ikasgaia izango da.

Aitorpena egiteko erabiliko diren irizpideak hauek dira:

-Dagokion tituluaren mota: Masterrak, Espezializazio diplomak eta Adituak bakarrik onartuko dira baldin eta horietan sartzeko unibertsitate titulua badauka, 2010EKO UZTAILAREN 6KO UNIBERTSITATEEN KONTSEILUAREN OROKO BILKURAK onartu zuenaren arabera, zeina UNIBERTSITATE POLITIKARAKO KONFERENTZIA OROKORRAK BERRETSI ZUEN, 2010EKO UZTAILAREN 7AN EGINDAKO SAIOAN, titulu propioei dagokienez.

-Prestakuntza horrekin lortutako edukien eta konpetentzien arteko parekagarritasuna.

-Norberaren tituluan egindako prestakuntzaren iraupenaren eta Industria Antolaketako Ingeniaritza Graduko ikasgai/ikasgaietan eskatutako prestakuntzaren arteko parekagarritasuna.

Adibide moduan, EAeko unibertsitateetako hainbat titulu propio zehaztu dira, aztertzen ari garen Graduan kredituak aitortzeko aukera eman dezaketen ikasgaiak eta edukiak dauzkatenak:

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO TITULU PROPIOEK INDUSTRIA ANTOLAKETAKO INGENIARITZA GRADUAN
AITORTU DITZAKETEN IKASGAIAK**

UNIBERTSITATEA	TITULU PROPIOAREN IZENA	EDUKIAK	GRADUAN AITORTZEKO IKASGAIA/K
Mondragon Unibertsitatea	MANTENTZE LANETAKO MAILA AURRERATUA (Iraupena: 140 ordu)	<p>1. modulua: Enpresa Bikainaren Mantentze Lanen Kudeaketa (10h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze Lanak enpresaren aktiboak kudeatzeko Negozio gisa. • Mantentze Lanak Kudeatzeko Sistema Bikain baten ezaugarriak. • Etengabeko hobekuntza Jardueren sistematika moduan Mantentze Lanen sistema Bikain batean. • Mantentze Lanen Sistema Bikain baten jardueren integrazioa <p>2. modulua: Mantentze Lanetako Pertsonen Kudeaketa (10h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze Lanetako Pertsonen kudeaketa. • Mantentze Lanetako lidergoa. • Prestakuntzaren kudeaketa. • Mantentze Lanen Ezagutzaren kudeaketa barruan zein kontratatuan. <p>3. modulua: Mantentze Lan Zuzentzailearen, Prebentiboaren eta Prediktiboaren antolamendua (30h).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lan zuzentzailea. • Mantentze lan prebentibo sistematikoa. • Mantentze lan autonomoa. • Mantentze lan sistematiko kondizionala. • Mantentze lan prediktiboa. • Mantentze lanen dimentsionamendua. <p>4. modulua: Instalazioen eta Makinen Fidagarritasuna (20h).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lanak eta Fidagarritasuna. • RCM. • Mantentze lanetarako bitartekoen FMEA. • Ekipamendu berriak eskuratzea. • Erroreen Aurkako Sistemak. <p>5. modulua: Mantentze Lanak eta Kudeaketa Sistema Integratuak (10h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Makinen segurtasuna eta Laneko Arriskuen Prebentzioa. • Makina Multzoen Segurtasuna – CE marka. • ISO 14000. • Kalitatea Kudeatzeko Sistemen eskakizunak Mantentze Lanak Kudeatzeko Sistemei dagokienez. • Kudeaketa Sistemen Integrazioa. <p>6. modulua: Mantentze Lanen Funtzioa (25)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lanen proiektuen kudeaketa. 	Aktibo Fisikoen kudeaketa DERR 3 ECTS

		<ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lanen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa. • Mantentze lanen kudeaketaren adierazleak. • Lan zorroaren kudeaketa. • Aginte panela. Definizioa eta kudeaketa. <p>7. modulua: Mantentze Lanen Azpikontratazioa (5h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lanen azpikontratazioa enpresarentzako estrategia gisa. • Azpikontratazioaren kontratua. • Azpikontratazioaren prozesua. Kontratisten ebaluazioa. • Kontratutako mantentze lanak antolatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea. • Kontratazioaren ikuskapena. • Lege, aseguru eta erantzukizunei buruzko alderdiak. <p>8. modulua: Eraikin eta instalazioen kudeaketa (5)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eraikinen mantentze lanak enpresaren balioa handitzeko bide gisa. • Gaur egungo lege esparrua. • Etorkizuneko esparrua: Aktiboaren balorazio egokiaren eta mantentze lanen derrigortasuna. • Eraikinaren segurtasun planak. • Outsourcing. Eraikinen kudeaketa azpikontratzea. • Eraikinak jasotzeko eta zabaltzeko legezko alderdiak. <p>9. modulua: TPM: Mantentze Lan Produktibo Totala (10h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Funtsezko kontzeptuak. • TPMaren 12 urratsak (Total Productive Maintenance). • TPMaren ikuspegi integratzailea. • TPM proiektuak ezartzeko estrategiak.. <p>10. modulua: GMAO (CMMS): Ordenagailuz Lagundutako Mantentze Lanen Kudeaketa (5h)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurune operatiboak. • Mantentze lanak kudeatzeko informazio sistema. • Aplikazio baten funtzionalitateak. • GMAO sistema bat ezartzeko prozesua. • GMAO sistema bat ustiatzea. • GMAO enpresa kudeatzeko sisteman integratzea. <p>11.modulua: Bisita eta eztabaida-foroa (5)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantentze lanetako sistema aurreratu baten azterketa eta dagokion eztabaida. <p>12. modulua: Aplikazioen tailerra (5)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planteatutako kasuen irtenbiderako proposamenak eta ikuspegia. 	
--	--	--	--

Mondragon Unibertsitatea	FINANTZETAKO IKASTARO AURRERATUA (Iraupena: 170 ordu)	FINANTZA KUDEAKETA (30h) Finantza Merkatuen Azterketa Kostuen Azterketa eta Kudeaketa Enpresaren Arriskuen Kudeaketa Enpresaren Fiskalitatea	Finantzak eta nazioarteko merkataritza DERR 4,5 ECTS
		BANKU FINANTZAKETA ETA TITULIZAZIOA (25h) Enpresa Finantzatzeko Iturriak Banku negoziazioa Finantza produktuak Elkarren bermerako sozietateak Titulizazioa	
		KAPITALEN MERKATUAK (30h) Burtsa erakundeei eta eragiketei buruzko sarrera Finantza Aktiboak eta inbertsioen kudeaketa Finantza Merkatuen azterketa Azterketa teknikoa Finantza Deribatuak (aukerak) Finantza produktuen zerga tratamendua	
		PROIEKTUEN AZTERKETA ETA FINANTZAKETA (20h) Enpresen balorazioa Inbertsio proiektuen finantzaketa Finantza Plana	
		KANPO MERKATARITZAKO ERAGIKETEN FINANTZAKETA (25H) Merkataritza kontratazioa Nazioarteko kontratazioa Finantza kudeaketarako tresnak Konkurtso egoerak Inportazio eta Esportazio eragiketak	
		AMAIERAKO LANA (40h)	

**BESTE UNIBERTSITATE BATZUETAKO INDUSTRIA ANTOLAKETAKO INGENIARITZA GRADUKO TITULUENGATIK
AITORTU DAITEZKEEN IKASGAIAK**

Unibertsitatea	Titulu propioa (graduondokoak)	Aitorpenaren oinarrian dauden titulu propioetako ikasgaiak					GRADUAN AITORTZEKO IKASGAI/AK
UPV-EHU	Unibertsitateko graduondoko espezialista: Garapen Iraunkorra. Tokiko Agenda 21en Kudeatzailea (iraupena 30,20 ECTS)	Dimentsio ekonomikoa (4,4ECTS) esparru juridiko administratiboa (4,2 ECTS)					Ingurumen ingeniaritza 6 ECTS
UPV-EHU	Graduondoko master propioa: Ingurumen Zuzenbidea (iraupena 60 ECTS)	Zati Orokorra I eta II (11+4 ECTS)					Ingurumen ingeniaritza 6 ECTS
UPV-EHU	Graduondoko master propioa: Nazioarteko Merkataritzako Zuzenbidea (iraupena 60 ECTS) Unibertsitateko graduondoko espezialista: Nazioarteko Merkataritzako Zuzenbidea (iraupena 30 ECTS)		Nazioarteko kontratazioa (4 ECTS), Nazioarteko Merkataritzako Arbitrajea (4 ECTS)				Finantzak eta Nazioarteko Merkataritza 4,5 ECTS
UPV-EHU	Graduondoko master propioa: Enpresen Kudeaketa (iraupena 65 ECTS)		Zuzendaritza Estrategikoa (13 ECTS)	Kontabilitatea (6 ECTS)		Organización de empresas y habilidades directivas (5 ECTS)	Finantzak eta Nazioarteko Merkataritza 4,5 ECTS Enpresa 6 ECTS Gestión de Personas 4,5 ECTS
UPV-EHU	Posgrado Máster propio Gestión para la Competitividad			La actividad económico-financiera (7,5			Enpresa 6 ECTS

	Empresarial (duración 60 ECTS)			ECTS)	Jarduera produktiboa (8,5 ECTS)	Pertsonen zuzendaritza (4,5 ECTS)	Fabrikazio sarrerak 6 ECTS Personen kudeaketa 4,5 ECTS
UPV-EHU	Unibertsitateko graduondoko espezialista: Hondakinen kudeaketa eta tratamendua (iraupena 30 ECTS)	Hondakin industrialak (3 ECTS) Hondakinen sailkapena (3 ECTS)					Ingurumen ingeniariatza 6 ECTS
UPV-EHU	Unibertsitateko graduondoko espezialista: Nazioartekotzea Enpresaren eremuan (iraupena 30 ECTS)		Orokorra				Finantzak eta Nazioarteko Merkataritza 4,5 ECTS
UPV-EHU	Graduondoko master propioa: Nazioarteko negozioak (iraupena 60 ECTS)		Nazioarteko logistika (3 ECTS) Nazioarteko finantzak (3 ECTS)				Finantzak eta Nazioarteko Merkataritza 4,5 ECTS
DEUSTUA	Ingurumen eta teknologi garbier masterra (CLEANTECH) (iraupena 60 ECTS)	Orokorra					Ingurumen ingeniariatza 6 ECTS
Nafarroako Unibertsitatea	Ingurumen Biologiako Diploma (iraupena 36 ECTS)	Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (6 ECTS)					Ingurumen ingeniariatza 6 ECTS
Nafarroako Unibertsitatea	The International Business Law Program (iraupena 24 ECTS)		Intro to transport and Inter, law (3 ECTS) Intro to inter. Comercial law (3 ECTS)				Finantzak eta Nazioarteko Merkataritza 4,5 ECTS

Lehena. 4) **Egiaztatutako lan eta lanbide esperientzia** ere kreditu moduan aitortu ahal izango da, eta konputatu egingo da Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduak titulua lortzeko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Ikasleak laneko esperientzia agiri bidez egiaztatu beharko du, agiri hauek aurkeztuz:
- + Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
 - + Zuzendariaren edo goragoko arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide edo lan esperientziaren fede ematen duena, eta horretan gutxienez agertuko dira: esperientzia profesionalaren iraupena, eskatzaileak jardun duen lan eremua eta laneko eginkizunaren ezaugarriak.
 - + Eskatzaileak berak egindako deklarazioa, alderdi hauek azalduko dituen: garatutako jarduera profesionala, jarduera horren bitartez lortutako gaitasun profesionalak, lortutako ezagutzak, eta aitortza zein ikasgaitarako eskatu nahi duen.
- b) Aitortzarako gutxieneko unitatea ikasgaia eta berari atxikitako kompetentziak izango dira, eta ez da aitortuko ikasgai bat osatzen ez duten ECTS unitaterik. Eta gradu amaierako lanen kredituak ere ezin izango dira aitortu.
- c) Egiaztatutako lanbide esperientziagatik lortutako kredituak aitortzeko irizpideak honako hauek izango dira:
- Unibertsitate titulu ofiziala edukitzea (Espainiakoa edo atzerrikoa)
 - Esperientzia profesionalaren denbora
 - Garatutako jarduera profesionalean eskainitako dedikazioa, osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa) edo partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa).
- d) Eskaeraren idatzia interesdunarekin egingo den elkarrizketa batez osatuko da; bertan, ikasgaiaren edo ikasgaien irakasleak/irakasleek ikasleak aitortzea nahi dituen ezagutzak eta kompetentziak eskuratu dituela egiaztatuko dute.
- c) puntuan jasotako hiru irizpideak konbinatuta ondoko taula ateratzen da, non unibertsitate titulu ofiziala duten ikasleei eskatzen zaien esperientzia profesionalaren denbora jasotzen baita:

Kredituak aitortzeko eskatzen den denbora:

1.EGOERA.- ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK KREDITUAK AITORTZEA
(UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALA EZ DUTEN ESKATZAILEAK)

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Ikasketa planeko ikasgaiei dagozkien 4,5 ECTS aitortu ahal izango dira gehienez (eta ikasgai horiei lotutako konpetentziak)	12 hilabete	24 hilabete

Enpresako praktikei dagozkien kredituak aitortu ahal izango dira, betiere Graduko konpetentziak lortu direla egiaztatzen bada, baita konpetentzia horiek ikasgai zehaztutara esleitu ezin izan badira ere, edo esperientzia profesionala kasu bakoitzean dagokion ikasgaiaren ECTS guztiak aitortzeko nahikotzat jo ez bada ere.

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Gutxieneko unitatea: 4,5 ECTS	12 hilabete	24 hilabete
Gehienezko unitatea: 30 ECTS	78 hilabete	156 hilabete

Lehena.3) eta lehena.4) ataletan jasotako kasuengatik aitortutako kredituak ez dira espedientearen baremazioarako zenbatuko.

2.EGOERA.- ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK KREDITUAK AITORTZEA (BEREZIA INDUSTRIA MEKANIKOKO INGENIARITZA TEKNIKOKO EDO INDUSTRIA INGENIARITZAKO TITULUA IZANIK EGOKITZAPEN MAILAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEENTZAT)

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Ikasketa planeko ikasgaiei dagozkien 18 ECTS aitortu ahal izango dira gehienez (eta ikasgai horiei lotutako konpetentziak)	12 hilabete	24 hilabete

Lehena. 5). – Gehienez ere Ikasketa Planeko 6 ECTS aitortu ahal izango dira unibertsitateko kultur edo kirol jardueretan, ikasleen ordezkartzarako ekintzetan edo elkartasun zein lankidetzako ekintzetan parte hartzeagatik. Aurrekoaren ondorioetarako, Goi Eskola Politeknikoak urtero aitorten hori eskuratzeko eskubidea ematen duten jarduerak emango ditu argitara, jarduera bakoitzean zenbat kreditu aitortu ahal izango diren eta jarduera horietan parte hartu dela egiaztatzeko zer mekanismo dauden adierazita.

Lehena. 6) - Honako muga hauek ezarri dira kredituak aitortzeko:

- Gradu Amaierako Lana ezingo da inola ere aitortu.
- Lan edo lanbide esperientziaren ondorioz eta beste titulu batzuk lortzeko egin diren unibertsitate irakaskuntzen ondorioz aitortutako kredituen kopurua, guztira, ezingo da 36 ECTS baino handiagoa izan.

Bigarrena.- Kredituen transferentzia

Kredituen transferentzia esaten dugunean, ikasle bakoitzak egindako ikasketen egiaztigiri akademiko ofizialak txertatzeaz ari gara, hau da, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean aurretik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak txertatzeaz, titulu ofizial bat lortzeko adina izan ez badira ere.

Hirugarrena.- Espediente akademikoa

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, titulua lortzeko irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak jasoko dira, kreditu transferituak, aitortuak edo gaindituak izan, kasu bakoitzean dagokiona adierazita. Kreditu aitortuak direnean, jatorriko irakaskuntzei buruzko honako informazio hau agertu beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa. Azken informazio hori ez da agertuko lan edo lanbide esperientziaren bidez aitortutako kredituen kasuan.

Laugarrena.- Tituluaren gehigarri europarra

Ikasleei emandako Tituluari egindako Gehigarri Europarrak, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, dagokion titulua lortzeko irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak islatuko ditu, kreditu transferituak, aitortuak edo gaindituak izan, Espediente Akademikorako ezarri diren zehaztapen berberekin.